



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2026ko irailaren 15a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Han Kang

(Boulogne-Billancourt, Frantzia, 1966)

Han Kang 1970ean jaio zen Gwangjun eta hamar bat urterekin Seulera joan zen bizitzera. Yonsei Unibertsitatean Koreako literatura ikasi zuen, eta 1993an egin zuen debuta bost poema argitaratuta. 1994an eleberrigile gisa hasi zen, eta 1995ean kaleratu zuen lehen ipuin-bilduma. 1998an Iowa Unibertsitateko Nazioarteko Idazketa Programan parte hartu zuen.

Sari ugari jaso ditu: Koreako Eleberriaren Saria (1999), Yi Sang Literatura Saria (2005), Dongri Literatura Saria (2010), Manhae eta Hwang Sun-won sariak, eta 2018ko Kim Yujung Literatura Saria. *Barazkijalea* lanak 2016ko Man Booker International Prize irabazi zuen, eta Human Acts lanak Malaparte Saria (2017). 2019an Future Library proiekturako hautatu zuten Norvegian.

Azken urteotan, Prix Médicis étranger (2023), Prix Émile Guimet (2024) eta NBCC Award for Fiction (2026) irabazi ditu. 2024an Literaturako Nobel Saria eman zioten.

Barazkijalea



Yeongye emazte zintzo, ohiko eta xarmarik gabe bat da, gau batez, senarraren ezusterako, hozkailuan duten haragi guztia botatzen duena, barazkijale bihurtzeko. Hortik aurrera, beste hainbat erabaki hartuko ditu bizitzan, zirt-zart, bere familia inarrosi eta noraezean utziko dutenak. Istorio bitxi bezain misteriozua, azpian gure zibilizazio osoaren oinarriak kolokan jartzera datorrena.

Han Kang-en argitalpenak euskaraz

Barazkijalea (2025) **N HAN**

Gema L. Las Heras

Lanbidez itzultzailea da Eusko Jaurlaritzaren HAEEn (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea). Administrazioari itzultzaile lanetan aritzetik literaturarako urratsa egin zuen. Jardun horretan Literatura Unibertsala bildumarako *Landa aldeko neskak* (2022, Erein) Edna O'Brienen trilogiako lehen liburua ekarri zuen euskarara. Ondoren, Annie Ernauxen *Emakume izoztua* (Elkar, 2023) euskaratu zuen 2023an Jokin Zaitegi lehiaketa irabazi ostean. Berari zor diogun, azkenik, *Barazkijalea* (Elkar, 2025) Han Kang hegokorear idazlearen liburuaren itzulpena.

Kritikak esandakoak

“Han Kang idazle korearraren lana dugu gaur hizpide, 2024. urtean Nobel saria jaso zuena eta, Jokin Zaitegi Nobel saridunak euskaratzeko lehiaketari esker, Gema L. Las Herasek itzuli zuena. Eleberri gordina da, hiru ahotsetara kontatua eta estilo soilean emana. Emakumeekiko indarkeriaren disezioa egiten da, hain xehe, ezen aldika bortitza baita irakurtzea bera ere, iduri baitu lekuko isil gisa begi parean pasatzen ari denaren konplize garela.

Botere harremanak ageri zaizkigu, hasteko. Protagonista, emakumea, eraldaketa bizian dago eta senarrak erresistentzia pasiboa antolatzen du, indarkeria sotila. Ez da saiatzen emaztea ulertzen, ez du bidelagun rola hartzen, ez du hausnartzen metamorfosiaren arazoien inguruan. Sinpleki, ez dio autoritaterik aitortzen erabaki bakar bat hartzeko eta, jasan ezinik, erabakitzen du botere harremanen uhin hedakorra emaztearen familiara luzatzea. Senarrak, ordea, biktimatza du bere burua: “Ez nuen ezer ulertzen. Une hartan pentsatu nuen ez nekiela tutik ere emakume hari buruz”. Harrigarriki sinesgarria da arduren banaketa desorekatua.

Gai nagusia, segur aski, osasun mentala da, eta irakurleak aldika ebatzi behar izaten du non paratu osasunaren eta eritasunaren arteko muga. Emakumeen bizitzak errenuntzien kronologia direnean, zein neurritan da sumisioa onargarria? “Beste behako bat eman zien etxeko objektuei. Hango ezertxo ere ez zuen berea. Bere bizitza sekula berea izan ez zuen bezalaxe”. Edo nola bizi indarkeria jasan duen gorputzaren memoriarekin? “Harrigarriro, (...) ez zuen batere jakin-minik agertu (...). Ematen zuen aski zuela gertatzen zitzaizkion gauzen lekuko huts izatea. Edo, beharbada, ezin imajinatuzko izugarrikeriak sufrituko zituen barrenean, eta egunez egun izugarrikeria haiek eraman

beharrak ez zion indarrik utziko beste ezeri buruz interesik azaltzeko, gauzak deskubritzeko edota inguruan zuenaren aurrean erreakzionatzeko”.

Azkenik, bertze hari narratiboetako bat emakumeengan kontzientzia piztea da: “Ez zaitut merezi —esan zion behin, ezkondu aurretik—. (...) Pozez hartu zituen senarraren hitz goxoak, nahiz ez zituen erabat ulertu. Orain, ordea, zalantza zuen ez ote ziren izan maiteminduta ez zegoela aitortzeko modu bat”. Ahalduntzea deitzen ahal diogu, nahiz eta hitz horren tontor askatzaileak bide malkartsua ezkutatu. Ezin gorrotoan bizi, ezin amorruan bizi, eta halere bizi, bizi behar, eraikitako bizitzek zanpatuta, aldi berean kondena eta itxaropena barnebiltzen dituen mantrari men: “Denbora ez da gelditzen”. Pertsonaiak saiatzen dira, nor bere modura, espektatiben, erruaren eta minaren armiarma saretik askatzen. Nola bizi, ordea, kontzientzia piztu ondotik eraldaketarik posible ez bada?”

Maialen Sobrino Lopez / Gara, 2026-04-05

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Han_Kang

https://eu.wikipedia.org/wiki/Gema_L%C3%B3pez_Las_Heras

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9377>

Nor da Nor

<https://nordanor.eus/nor?id=2223&tmp=1643102654381>